



Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, baita osasuna eta ongizatea bermatuko dizkion bizitokia izatekoa ere. 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak etxebizitzarako eskubidea jaso egin zuen, mundu erdiko hiriak Gudak birrinduta zeudela. Bakoitzak, hala ere, era ezberdinean ulertuko zuen. Hala behar zuen, antza, etxebizitzarena hainbeste diru balio duen eskubidea izaki. Estatuek, oro har, etxearen arazoari eurek baka-rik ezin eutsirik, ekimen pribatuaren esku utzi behar izan zituzten, hein handi batean, gizarte-etxeen sustapena eta eraikuntza. Era- biltzeko omen zen ondasuna, horrela, negoziarako salgai bihurtu zen. Alokairu soziala ei zen bultzatu beharreko politika, baina errealitatearen gordinak eta ondasunaren kulturak babes of- zialeko jabegoa larregi sustatu zuten, gure artean, batez ere.

Preziosa mugatua duten bizitza sozialek aspaldi utzi zioten gizarte- maila apalenei soilik zerbitzatzeari. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) eskatzaile batek 35.000 euro irabaz ditzake urtean (erregi- men tasatuko BOE-en eskatzaile batek, 45.500!). Bai, hilean ia 3.000 euro irabaz ditzakeen pertsona bati diruz laguntzen zaio —lurzoruaren balioak ezin du BOEren prezioaren % 20 gainditu—, bideo-atezaina legez eduki behar duen etxebizitza bat eskainiz. Hitzok demagogiko samarrak gerta daitezke, babes ofizialeko etxe baten beharrea jende andana egongo baita, zorixarrez, baina gizarte-etxebizitzaren hartzaileen orokortzeak konparazio- bidegabekeriari atek ireki dizkiola ezin da ukatu.

Kalitatea eta iraunkortasuna behin eta berriro errepikatzen digute etxebizitza-sailburuek, hitzok mantra berria osatuko balute bezala. Egungo babes ofizialeko etxebizitzaren kalitatea orokorki ukatzerik ez dago, bai diseinuari bai eraikuntzari dagokienez. Politikak, ha- laber, zuzentze-bidean daudelakoan gaude —eskubide bat zoz- katzeak eragiten dituen zalantza guztiekin—, azalera-eskubidea- ren formula gauzatzen hasi zen unetik. Hala ere, gizarte bat bereizi gabe diruz laguntzea ez da hezteko modurik iraunkorrena. Gaude alokairu soziala dela jarraitu beharreko lan-ildorik bidezkoena, babes ofizialeko gizarte bat osatzerik nahi izan ezean.

Balio beza Aldiri aldizkariaren lehen zenbaki honek gaiaren ingur- ruko hausnarketa eragiteko.

